

Gender A B C

Bigarren Hezkuntzarako
heziketa-programa



Giza eskubideak eta haurren eskubideak

GenderABC (ABC Generoa) proiektuaren koordinatzailea da



eta abian jarri dutenak dira



Argitalpen hau Europar Batasuneko Eskubideak, berdintasuna eta Herritartasuna Programak (2014-2020) finantzatu du.



Bigarren Hezkuntzarako
heziketa-programa

Giza eskubideak eta haurren eskubideak

Heziketa-modulu hau **TERRE DES FEMMES** elkarteak landu dute GenderABC proiektuaren barruan.

Aurkibidea

Aurkibidea	2
I - atala: Sarrera	3
1. Xedea	3
2. Gai nagusiak	3
3. Gako-hitzak	3
4. Ikasketa-xedeak	4
5. Jardueren zerrenda	4
II - atala: Jarduerak	5
1. jarduera: <i>Giza eskubideak irudikatu zure bizilekuan</i>	5
• Testuingurua	5
• Gidoia	5
• Jarraibideak	7
2. jarduera: <i>Olinpiar domina</i>	8
• Testuingurua	8
• Gidoia	8
• Jarraibideak	9
3. jarduera: <i>Horretaz hitz egin dezagun!</i>	10
• Testuingurua	10
• Gidoia	10
• Jarraibideak	11
Saioaren egitura	12
Moduluen zerrenda	13

I - atala

SARRERA

1. Xedea

Giza eskubideak unibertsalak, banaezinak eta besterenezinak dira. Barne hartzen dituzte hala eskubide zibilak nola politikoak: bizitzeko, osotasun fisikorako eta adierazpen askatasunerako eskubideak. Giza eskubideen babesa legeria multzo batean oinarritzen da. Lege esparru bat haurren eskubideena da: haurrek babes berezia edukitzeko eskubidea dute ustiapenarekiko eta abusuarekiko ahulagoak direlako. Testuinguru horretan, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa funtsezko akordioa da eta 18 urte baino gutxiagoko gazte guztiei aplikatzen zaie. Nazio Batuen konbentzio hau haurren eskubideak babesteko lehenengo lege tresna loteslea da eta lau printzipio nagusi jasotzen ditu: diskriminaziorik eza, haurraren interes gorena, bizitzeko, bizirauteko eta garatzeko eskubidea eta haurraren iritzien errespetua. Printzipio horiek legezkoak dira.

Modulu honek modu naturalean sortzen ez den demokrazia, bake eta errespetuzko ingurune batean elkarrekin bizitzeko gaitasuna sustatzen du. Demokrazia batean bizitzeko funtsezko ezagutza, gaitasunak eta balioak bizitza osoan zehar ikasi eta elikatu beharko lirateke, esperientziaren eta praktikaren bidez, ingurune demokratiko batean biziz eta jardunez eta ahalik eta adinik goiztiarrean hasita¹.

Hain zuzen ere, giza eskubideen hezkuntza horretan oinarritzen da. Gainera, genero-indarkeriari aurre egiteko, giza eskubideen hezkuntza funtsezko ardatza da.

2. Gai nagusiak

- Giza eskubideak eta haurren eskubideak: parte-hartzaileek beren eskubideak eta horiek aplika ditzaketen egoerak ezagutzen dituzte.
- Besteen eskubideak errespetatzea: ezagutzatik praktikara.
- Ahalduntzea: haurren eskubideak babesten eta defendatzen ikastea.

3. Gako-hitzak

Eskubide osoak • Eskubideen gutuna • Eskubide zibilak eta politikoak
Legeria loteslea • Giza eskubideak • Haurren eskubideak
Konbentzioa • Indargabetu ezin diren eskubideak • Berrespena
Eskubide sozialak eta ekonomikoak • Legeria ez-loteslea

¹ Europako Kontseilua, *Compasito*, 2007; online eskuragarri hemen: <http://www.eycb.coe.int/compasito/>

4. Ikasketa-xedeak

- Giza eskubideen eta bereziki haurren eskubideen inguruan kontzientziatzea.
- Guztiontzako eskubide berberak indartzea (generoa, klasea, arraza eta erlijioa gorabehera).
- Giza eskubideak defendatzeko eta berdintasuna eta duintasuna errespetatzeko jokabideak garatzeko trebetasunak eta gaitasunak lortzea.
- Parte-hartzaileak hezte bere komunitateetako kide aktiboak eta arduratsuak izan daitezen.
- Pentsamendu eta hausnarketa kritikoak.

5. Jardueren zerrenda

	 Jardueraren izena	 Iraupena guztira	 Materialak	 Garrantzia ²
1	Giza eskubideak irudikatu zure bizilekuan	60 minutu	• Tokiko eta eskualdeko mapak • Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren kopiak (haurrentzako bertsioa)³	☆☆☆
2	Olinpiar domina	35 minutu	• Inprobisatutako mozerroak • Paperezko dominak • Musikarako sarbidea	☆☆☆
3	Horretaz hitz egin dezagun!	45 minutu	• Gaiari buruzko txartelak • Txartelen kopiak	☆☆☆

² Jarduerak izarrekin sailkatzen dira (izar bat eta hiru izar bitarteko sailkapenarekin) garrantziaren arabera; adibidez, “oso gomendagarria” den jarduera bat hiru izarrekin sailkatzen da.
³ Ikus Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa (haurrentzako bertsioa); online eskuragarri hemen: http://www.eycb.coe.int/compasito/chapter_6/4.html

II - atala
JARDUERAK

I. jarduera Giza eskubideak irudikatu zure bizilekuan⁴ ☆☆☆

 **Jardueraren iraupena guztira**
60 minutu
Prestatzea: 10
Egitea: 40
Segimendua: 10

 **Materialak**
☐ Tokiko eta eskualdeko mapak
☐ Nazio Batuen Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren kopiak (haurrentzako bertsioa, *Compasito*)

→ TESTUINGURUA

Jarduera honetan, parte-hartzaileek ikertuko dute **Haurren Eskubideen Konbentzioak nola eragiten duen pertsonen eguneroko bizitzan gure komunitateetan**. Horrez gain, parte-hartzaileak eskubideak gauzatzean sortzen diren genero-desberdintasunez jabetuko dira.

→ GIDOIA



A Talde txikietan banatuko ditugu parte-hartzaileak eta beren herriaren mapa bat marrazteko eskatuko diogu talde bakoitzari. Mapa horretan, honako elementu hauek marraztu behar dituzte: beren etxeak, eraikin publiko nagusiak edo monumentu historikoak eta zerbitzu publikoak eta komunitatearentzat garrantzitsuak diren bestelako lekuak (eskolak, ospitaleak, parkeak, emakumeentzako osasun-zentroak, gasolindegia, lantokiak, dendak eta abar).



B Mapak bukatzerakoan, parte-hartzaileei eskatuko diegu beren mapak aztertze giza eskubideen eta haurren eskubideen ikuspegitik. Zein giza eskubiderekin lotzen dute mapan irudikatu-tako leku bakoitza? Esaterako, kulturako leku bat pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasunarekin lotuko litzateke; eskola bat hezkuntzarako eskubidearekin eta emakumeentzako osasun-zentroak arreta berezia izateko eskubidearekin, sexu-eskubideen sustapenarekin eta genero-berdintasunarekin.

⁴ Northern Ireland Human Rights Commission, NIHRC (Giza Esubnideei buruzko Ipar Irlandako Batzordea) (2008): *Inspiring practice. Resources, tools and activities for human rights education* (Praktika inspiratzen. Baliabideak, tresnak eta jarduerak giza eskubideetan) - 99 a 101. [Inspiring practice.pdf]



C Era berean, galdetuko diegu zeintzuk diren eskubideekin lotura argirik ez duten lekuak. Adibidez, zeintzuk dira kalean arriskuan egon daitezkeen eskubideak? Eta etxean? Non izan daitezke bereziki garrantzitsuak haurren eskubideak? Parte-hartzaileek eskubide horiek identifikatuko dituzte eta, horrez gain, 1998ko Giza Eskubideen Legearen artikulua eta 1989ko Haurraren Eskubideen Konbentzioa aztertuko dituzte; amaitzeko, artikuluen zenbakiak idatziko dituzte mapako lekuaren ondoan.



D Talde bakoitzeko boluntario bati eskatuko diogu bere mapa talde osoari aurkezteko, hau da, saiatu behar da bere taldeak haurren eskubideen inguruan egindako analisia laburtzen. Parte-hartzaileak animatuko ditugu komunitatean identifikatutako eskubideei dagokienez dauden desberdintasunak eta antzekotasunak bilatzera.

Galdereen adibideak:

- Ba al dago mapan lekuren bat non eskubideen kontzentrazio altua dagoen? Nola azal daiteke hori?
- Ba al dago lekuren bat eskubiderik esleitu ez zaiona edo oso gutxi esleitu zaizkiona? Nola azal daiteke hori?
- Ba al dago komunitatean bereziki gauzatzen den Giza Eskubideen Legearen artikulurik? Nola azal daiteke hori?
- Ba al dago mapan inork irudikatu ez duen Giza Eskubideen Legearen artikulurik? Nola azal daiteke hori? Ba al dago mapan Giza Eskubideen Legean agertzen ez den eskubiderik?
- Aipatutako eskubideen artean, zeintzuk dira eskubide zibilak eta politikoak? Eta zeintzuk sozialak, ekonomikoak eta kulturalak?
- Ba al dago lekuren bat non haurren eskubideak oso garrantzitsuak diren? Eta non urratzen dira?
- Ba al dago lekuren bat non emakumeen eskubideak oso garrantzitsuak diren? Eta non urratzen dira?
- Ba al dago mapan gailentzen den eskubide-motaren bat?
- Ba al daki norbaitek nola gehi daitezkeen bereziki lehenengo bertsioan aipatu ez diren bestelako eskubideak mapa horretan?
- Ba al dago mapan lekuren bat non pertsonen eskubideak urratzen diren?
- Hala bada, zer gertatzen da urratzen direnean?

→ JARRAIBIDEAK

Jarduera egin ostean, eztabaida zuzendu genezake honako galdera hauetan oinarrituta:



- Nola sentitu zara zure inguruari buruz hitz egitean?
- Beti sentitzen al duzu besteek errespetatzen eta entzuten zaituztela? Zergatik?
- Zer iruditzen zaizu jarduera hau?
- Zein izan da zure auzoan haurren eskubideak identifikatzeko kontuan hartu duzun oinarria?
- Baztertuta sentitu al zara inoiz soilik zu izateagatik?
- Zein lezio ondoriozta dezakegu jarduera honetatik?
- Zer egin dezakezu besteak kontuan hartzeko eta errespetatuak senti daitezen?
- Zein aldaketa zehatz egin liteke pertsona guztiek parte har dezaten jardueretan?
- Pertsonen eskubideak errespetatzen ez diren kasuetarako, zeintzuk dira eskura dituzten zerbitzuak?
- Zeintzuk dira kontrolatu ezin diren eta pertsonen identitatea bereizten duten faktoreak? Zer alda daiteke?
- Ba al dago generoarekin lotutako alderik?

2. jarduera Olinpiar domina ★★



Jardueraren iraupena guztira

35 minutu
Prestatzea: 5
Egitea: 20
Segimendua: 10




Materialak

- ☐ Inprobisatutako moztarroak
- ☐ Paperezko dominak
- ☐ Musikarako sarbidea

→ TESTUINGURUA

Jarduera honen helburua **da parte-hartzaileak ahalduntzea, bere gaitasunen eta abilezien inguruan pentsatuz eta horretaz hitz eginez**, haientzat garrantzitsuak diren gauzak adieraz ditzaten eta **beren eguneroko bizitzetan gaingitu behar dituzten genero-ezberdintasunak parteka ditzaten**. Parte-hartzaileak jabetuko dira, guztiok gure eskubideez goza dezagun, desberdintasunak onartu behar direla, baita beste pertsonen pribatutasuna eta iritzia ere. Horrez gain, hauxe une egokia da parte-hartzaileek uler dezaten haur gisa zituzten eskubideak (18 urte baino gazteagoak) eta orain neska eta mutil gazte moduan bizitzen dutena desberdinak direla.

→ GIDOIA




Paperezko dominak emango dizkiegu parte-hartzaileei (domina bakoitzak lau atal ditu) eta atal bakoitzean hauxe idazteko eskatuko: **1)** haien indarguneak eta gaitasunak; **2)** haientzat garrantzitsua zer den; **3)** haien bereizgarriren bat marraztu; **4)** beren buruarengandik gustatzen zaiena marraztu.



Bikoteka banatuta, parte-hartzaileei nork bere domina bikotekideari aurkezteko eskatuko zaie.



Bigarrenik, musika jarriko dugu sari bat aurkezteko, eta parte-hartzaile guztiek jasoko dute kidearen domina eta horrek talde osoari aurkeztuko dizkio idatzitako lau puntuak.



Ondoren, “dominen horma” sor genezake eta parte-hartzaileei eskatu geniezaieke azaltzeko.

→ JARRAIBIDEAK

Jarduera egin ostean, eztabaida sor dezakegu jarraian jasoko diren galderak jarraituz eta konexio bat ezarri dominaren eta haurren eskubideen elementu guztien artean, baita genero-berdintasunarekin lotutako alderdiak kontuan hartuz ere (adibidez: erabakitzaile moduan garatzeko, parte hartzeko eta aintzat hartua izateko eskubidea, hezkuntzarako eta norberaren identitaterako eskubidea, atsedean hartzeko eta jolasteko eskubidea eta indarkeria-forma guztietatik babestua izateko eskubidea).

Jarduera egin ostean, eztabaida zuzenduko dugu honako galdera hauetan oinarrituta:



- Nola sentitu zara zure kideak zure indarguneak eta gaitasunak aurkeztu dituenen?
- Zergatik da garrantzitsua abileziak eta alderdi positiboak gogoratzea eta horren inguruan pentsatzea?
- Domina desberdinak aztertuz, taldearentzat garrantzitsuak diren gauzen artean, ba al dago antzekotasunik?
- Gaitasunak eta abileziak aztertuz: ba al dago desberdintasunik neska eta mutil gazteen artean? Horren inguruan eztabaidatu: nola daude lotuta desberdintasun horiek beren eskubideekin eta autoestimarekin?
- Zer egin daiteke taldeak eta gizarteak gazteriaren ideiak eta desirak entzuten eta errespetatzen dituztela bermatzeko?
- Zer egin daiteke taldeko kide guztiak bere desirak eta idealak adierazteko aske senti daitezen?
- Zer egin daiteke elkar hobeto ezagutzeko?

3. jarduera Horretaz hitz egin dezagun!⁵ ★★



Jardueraren iraupena guztira

45 minutu
Prestatzea: 5
Egitea: 30
Segimendua: 10



Materialak

- ☐ Gaiari buruzko txartelak
- ☐ Txartelen kopiak

→ TESTUINGURUA

Jarduera honek parte-hartzaileei laguntzen die Giza Eskubideekin eta Haurren Eskubideekin lotutako gai garrantzitsuak identifikatzen eta, gainera, pentsamendu komunikatiboa eta kritikoa sustatzen ditu.

→ GIDOIA



Lau horma-irudi sortuko ditugu esaldi hauekin: “Lagunekin”, “nire gurasoekin”, “gazteria-begirale batekin” eta “nire eskolako edo komunitateko jendearekin”.



Jarduera honen amaieran aurkeztutako zerrendatik, parte-hartzaile bakoitzari eskatuko zaio 5 gai ordezkatzeko dituzten 5 esaldi aukeratzeko. Horiez gain, gai berriak gehi ditzakete. Horren ostean, parte-hartzaileek esaldi hori kokatuko dute gaia eztabaidatu nahi duten pertsona hobeto irudikatzen duten posterraren ondoan, eta 4 gairik nabarmenenak identifikatuko dituzte 4 posterretako bakoitzarentzat.



Bigarrenik, talde handia talde txikiagoetan banatuko dugu eta talde horietako kideei eskatuko diegu aukeratzeko “lagunekin” edo “eskolako edo komunitateko pertsonekin” eztabaidatu nahi dituzten gaiak; halaber, haiekin lotutako gaien 3 adibide emateko eskatuko diegu.



Talde bakoitzari eskatuko diogu gaiak aurkezteko eta talde handiak jarduera bat antolatu beharko du gai horiek zehatzago aztertzeo, adibidez, eztabaida bat.

→ JARRAIBIDEAK

Jarduera egin ostean, eztabaida zuzenduko dugu honako galdera hauetan oinarrituta:



- Jarduera hau gustatu al zaizu? Egon al da gustatu ez zaizun ezer?
- Zer ikasi duzu? Ba al dago gehiago sakontzea gustatuko litzaizukeen gairik? Nola egin daiteke hori?
- Ba al duzu hitz egin behar duzunean laguntzen zaituen konfiantzako pertsonarik? Zer nolako lekuak daude zure komunitatean?
- Zer nolako lotura dute gai horiek zure eskubideekin eta egunerokotasunean bizitzen duzunarekin?
- Zer egin dezakezu gustatzen ez zaizuna aldatzeko?

Jorrazteko gaiak (prestatu beharrekoak⁶):

Dirua lortzea	Cyberbullying-a, Facebook eta Twitter
Arrazismoa	Nire kultura edo nire gurasoen kultura
Kultura indigena	Sexua
Haur bat edukitzea	Neska- edo mutil-laguna
Lagunak	Nire harremana nire gurasoekin
Immigrantea edo errefuxiatua izatea	Txirotasuna
Depresioa eta gaixotasun mentala	Gorputz-irudia
Prostituzioa	Nire eskubideak eta erantzukizunak
Langileen eskubideak	Desgaitasun batekin bizitzea
Sexualitatea (homo-, cis-, bi-, trans-, inter-)	Maitasuna
Adiskidetasuna eta konfiantza	Indarkeria
Nire etorkizuna eta ametsak	Ezkontza
Bestelakoa	

⁵ Egokitutako bertsioa: Equitas, *Speaking Rights*, 32. zenbakia.

⁶ Equitas (2012), *Speaking rights. Human rights education toolkit for youth – 12-25* (Eskubideei buruz berbetan. Eskubideen arloko heziketarako tresnak gazteentzat – 12tik 25 urtera arte). [SR-Toolkit-Sample.pdf], Cards. 19-21.

Saioaren egitura

Moduluaren izena: Giza eskubideak eta haurren eskubideak

Ikastetxea: _____

Irakaslea, arduraduna: _____

Ikasgela (Ikasturtea eta data): _____

Parte-hartzaileen kopurua: _____

Data: ____/____/____ Iraupena: _____

Aukeratutako jarduerak: _____

Materialak (berrikusiak): ☐ bai ☐ ez

OHARRAK:

Gender ABC proiektuaren

MODULUEN ZERRENDA

Modulu
en
Bigarren
Hezkuntzarako
heziketa

- 01 Ziber-indarkeria
- 02 Ezkontza goiztiarra eta behartua
- 03 Ahalduntzea eta komunikazio-gaitasunak
- 04 Emakumeen genitalen mutilazioa
- 05 Genero-indarkeria
- 06 Generoko gizarte-arauak eta estereotipoak
- 07 Talde-kohesioa
- 08 **Giza eskubideak eta haurren eskubideak**
- 09 Bikote barruko indarkeria
- 10 Sexu-orientazioa eta genero-identitatea
- 11 Sexu- eta ugalketa-osasuna eta eskubideak
- 12 Sexu-indarkeria

Modulu
en
Lehen
Hezkuntzarako
heziketa

- 01 Gorputzaren segurtasuna / Emakumeen genitalen mutilazioa
- 02 Ahalduntzea eta komunikazio-gaitasunak
- 03 Generoan oinarritutako indarkeria
- 04 Generoaren arau sozialak eta estereotipoak
- 05 Giza eskubideak eta haurren eskubideak
- 06 Sexu-orientazioa eta genero-identitatea

Dokumentu
laguntzaileak

- 01 Arriskuen ebaluazioa
- 02 Metodologia orokorra
- 03 Glosario orokorra

Gender A B C

Ek egindako proiektua:



End FGM
EUROPEAN NETWORK



ASSOCIAÇÃO PARA O PLANEAMENTO DA FAMÍLIA



Europar Batasunak
kofinantzatutako proiektua